


ortzaadlar

larunbata, 2021eko uztailaren 17a 697. zenbakia

noticiasdegipuzkoa.eus

euskal kulturaren holore guztiak



NEREA LOIOLA

'Epizentroa'
zazpi ipuinez osaturiko
lana argitaratu berri du
idazle debarrak

— 4. eta 5. orrialdeak —

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

literatura

pertsonaia batzuk zugandik oso urrun daudela?" Ariketa zaila eta arriskutsua zela esan nahi zidan. Zilegizkoa zela hori egitea, baina zergati bat eduki behar nuela nik, ez kanpora begira justifikatzeko, baizik eta nire buruak jakin zezan. Hasiara batean pentsatu gabe egin nuen, eta ez nuen jakin erantzun bat ematen. Baina gerora, konturatu nintzen distantzia hori behar nuela. Pertsonaiak nigandik urrundu behar nituen, gai batzuk mahai gainean jarri ahal izateko, eta bereziki gai horiei buruz nire buruarekin zintzoa izateko.

Ba al dago literatura egiterik norberarena den ezer kontatu gabe?

Ez dakit egin daitekeen edo ez. Niri oso zaila egiten zait. Fikzioa sortzen ari gara, baina fikzio hori erreala izan behar da. Irakurterraza egin behar zaio irakurleari. Nik ez dakit fikziorik egiten tartean errealtatea ez bada. Benetako gauzak hartu behar ditut, bestela ezinezkoa zait, esaterako, mugimenduak deskribatzea. Gaiak ere nik nire sentitu behar ditut, ezin dut idatzi interesatzen ez zaidan horri buruz edo mugitzen ez nauen horri buruz. Ez dakit gerora egin ahalko dudana, baina, oraingoz, ezin dut.

Irakurlea zurekin mantentzeko arreta berezia jarri al diozu?

Azken finean, guztiok identifikatzeko moduko gaiak dira: gurasotasuna, lagun zein bestelako harremanak, nahiak eta ezinak, erabakiak hartu eta gauzatu beharra... Nik uste dut gai horiek gertuko sentitzen ditugula guztiok, eta horrek egiten du errazago izatea istorioan sartzea, oso erreal sentituko ditugulako. Baina gero, beste alde batetik, niri misterioa gustatzen zait. Horregatik, saiatu naiz misterio edo tentsio puntu hori mantentzen, pista txikiak ematen joan eta bukaera ezustekoak eman. Eta tentsio horrek ere harrapatzen du irakurlea.

Zazpi istorioetan emakumea da protagonista. Nahita hartutako erabakia da hori?

Hasieran nahigabe egin nuen. Ipuinak banan-banan idatzi ditut eta elkarren independenteak dira. Lehenengoa idatzi nuen eta emakumea zen protagonista; bigarrena idatzi nuen eta berriz ere emakumea zen protagonista;

Irudiar, Nerea Loiola idazlea.
IMANOL EPELDE

balio bat ematen dionean, beste leku batetik jarraitzen duzu lanean.

'Epizentroa' izenburupean zazpi istorio jaso dituzu beste batzuen ahotik. Zugandik urrun dauden kontakizunak al dira?

Irakurleak jasotzen dituen kontakizun horiek nigandik urrun daude, pertsonaiek ez daukate nirekin zerikusi handirik eta istorioek beraiek ezta ere. Ez da autofikzio bat, ez da nire inguruan gertatu den ezer. Baina, modu berean, istorio horien abiapuntua edo epizentroa nigandik gertu dago. Azkenean, nire gorputzetik ateratako istorioak dira: gaiak, kezak, zalantzak, nahiak... Idazketa prozesua dibergentzia prozesu bat bezalakoa izan da; hasi naiz oso gertutik, iristeko urrutira, nahiz eta gertuko esentzia hori hor geratzen den.

Protagonistak ere zugandik urrun daude. Zergatik protagonistak urrutzearen hautu hori?

Literatura aditua den pertsona bati pasatua nion testua irakur zezan, eta hark alarma hori piztu zidan. Esan zidan: "Konturatu zara

“

Pila bat gozatu dut hau idazten (...) Asko ikasi dut bide honetan; literaturaz ikasi dut, baina nire buruaz eta gai horietaz ere ikasi dut.


hirugarrena idaztera joan eta emakume ahotsa ateratzen zitzaidan. Gelditu egin nintzen, eta egoera aztertu nuen: ea nahita egingako gauza bat zen, ea horrela egin nahi nuen, ea zergatik gertatzen ari zen... Eta nik uste dut nire lurrikaretatik sortutako istorioak direlako, eta nire gorputzetik idatzitakoak direlako gertatu zela hori: emakume naizen heinean emakumeen bitartez kontaketa ateratzen zitzaidan. Hala ere, istorio batzuetan protagonista bat baino gehiago daude, eta gizonezko batzuk ere azaltzen dira; ipuinak edo barruak hala eskatu izan didalako kasu horietan.

Liburu hau idaztea zure barruak ezagutzeko ariketa izan al da?

Nik uste dut idazten dugunean beti mugitzen zaizkigula barruak, bestela kostatzen zait sinestea zerbait ona idatzi daitekeenik ere. Nik, behintzat, nire buruari eskatzen diot barruak mugitzearen eta sufrimenduaren arteko muga horretan geratzea. Alegia, nik ez dut nahi sufritu. Idazle batzuei entzun izan diet gaizki pasatzen dutela idazten duten bitartean eta nik, orain behintzat, ez diot holakorik opa nire buruari. Pila bat gozatu dut hau idazten, baina egia da barruan nituela nire buruari esan nahi nizkion gauza batzuk. Asko ikasi dut bide honetan; literaturaz ikasi dut, baina nire buruaz eta gai horietaz ere ikasi dut.

Helduentzako lehen liburua kalean, hurrengoa ere helduentzat izango al da?

Udaberrian Jaurlaritzaren beste diru laguntza bat eskatu nuen, kasu honetan, gazteentzako nobela beltza idazteko, eta eman egin didate, beraz horrekin jarri beharko naiz. Momentuz, barruak eskatzen didana idazten dut. Badaukat martxan haurtentzako liburu bat ere, eta helduentzako ipuinak izan daitezkeen beste bi-hiru ideia ere baditut. Bestalde, Erein argitaletxeok esan ziguten udaberrian umeentzako album ilustratu bat ere argitaratuko dela, beraz, horretan ere banabil.



'Epizentroa' da Loiolak helduei zuzenduta idatzi duen lehen lana. IMANOL EPELDE